

Babes publikoko etxebizitza – Betekizunak

Etxebizitzaren premia

Bizikidetzta-unitateko pertsonak ez dute etxebizitzarik eduki behar jabetzan, jabetza soilean, azalera-
eskubidean edo usufruktuan, etxebizitzak kalifikatzen diren egunaren aurreko bi urteetan.

Salbuespenak:

- 1) Etxebizitzak azaroaren 30eko 317/2002 Dekretuan ezarritako gutxieneko bizigarritasun-baldintzak ez betetzea eta kalifikazio-data baino gutxienez bost urte lehenago eskuratu ez izana.
Teknikari aditu batek egindako txostenaren arabera eraikuntza-soluziorik onartzen ez duten akatsak baino ez dira kontuan hartuko. Nolanahi ere, Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzetako zerbitzu teknikoek txosten kontrajarriak egin ahal izango dituzte, eta txosten horiek lotesleak izango dira.
- 2) Etxebizitza beste ezkontidearen familia-bizileku gisa judizialki esleitu izana, banantzeko, dibortziazeko edo izatezko bikoteak desegiteko prozesu baten ondoren.
- 3) Etxebizitza hipoteka betearazteko prozesu baten ondoren hirugarren gradura arteko odolkidetasunezko edo ezkontza-ahaidetasunezko ahaidetasunik ez duen pertsona bati esleitu izana, modu judizialean edota notariotzan.
- 4) Etxebizitzak indarrean dagoen araudian aurreikusitako irisgarritasun-baldintzak ez betetzea, titularrek 70 urte edo gehiago dituztenean.
- 5) Etxebizitzak pertsona bakoitzeko 15 metro koadrotik beherako azalera erabilgarria izatea.
- 6) Etxebizitza hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuan sarbideei eta jasogailuei buruz biltzen dituen zehaztapenak betetzen ez dituen eraikin baten parte izatea, betiere kideetako bat mugikortasun urri iraunkorra duen pertsona desgaitua bada.

Aurreko kasuetan aipatutako etxebizitzaren titulartasuna bateragarria da beste pertsona edo bizikidetzta-unitate batzuen ohiko bizileku iraunkorra den beste etxebizitza baten (edo batzuen) % 50etik beherako titulartasunarekin (jabetzan, jabetza soilean, azalera-eskubidean edo usufruktuan bada), betiere partaidetzen guztizko balioa 75.000 eurotik gorakoa ez bada. [Irakurri legezko testua](#)